

FUNTSEZKO JARDUERAK

BOLONDRES BILAKETA:

Gure diru sarreren ondorioz, ezin izango ditugu langile asko finko kontratatu. Hau saihesteko, hainbat lekutatik bolondres moduan lan egin nahi duten pertsonak bilatuko ditugu. **Unibertsitateak eta institutuak** (batxileergoko ikasleei) izango dira leku horiek. Hau da, 16 urte izanez gero gurekin lanean aritu ahal dira pertsona guztiak. Hitzaldiak emango ditugu hor, eta gure ekintzaren berri emango dugu, bolondresak gure ekintzan parte hartzera animatzeko.



HAEK HIRUGARREN ADINARAKO ELKARTE

KULTURALA

GERTURATU
ETA
INFORMAZIOA
JASO!

KONTAKTUA:

 : [haekelkartea](#)

 : haekelkartea@gmail.com

 : [haekelkartea](#)

 : 688718308

 : <https://bazaitziber.wixsite.com/website/>

VITORIA- GASTEIZ

Gizarte etxeetan hitzaldiak emango ditugu, jende gehiago gure ekintzaren berri izan dezan. Gainera, kalean, eskoletan eta garraio publikoan **kartel** batzuk ipiniko genituzke jende gehiagori gure ekimenaren berri heltzeko. Kartelean gure telefono zenbakia, webgunea, emaila eta sare sozialak eskainiko ditugu bertatik kontaktatzeko.

LANGILEEN KONTRATAZIOA:

Langileak kontratatzeko, interneten iragarki bat ipiniko dugu. Behar ditugun langileak erizain bat, gizarte langile bat eta kirol begirale bat. Iragakian gure telefono zenbakia, emaila eta sare sozialak eskainiko ditugu jendea gurekin kontaktuan egoteko. Langileak kontratatu aurretik elkarrizketa bat egingo diegu, gure perfila betetzen duten jakiteko.

Gure langileak 1.000 euroko soldata izango dute.

SARE SOZIALEN ETA WEB ORRIALDEAREN KUDEAKETA:

Gure zerbitzuen berri emateko **webgune** bat sortuko dugu.

Gainera, **sare sozialetatik** ere bai mugituko gara, hala nola; Instagram eta Facebook.

Gure webgunean egingo dugun plangintza guztia aterako da eta gure sare sozialetako perfil guztietan webgunearen link-a ipiniko dugu.

Gure bezeroak gure sare sozialetan sartzean, link-a klikatuz gero webgunera ailegatuko dira, eta behar duten informazio guztia aurkituko dute.

Gure webgunearen esteka:

(<https://bazaitziber.wixsite.com/website/>)

GURE ZERBITZUAK:

- Kirol jarduerak:

Yoga: astearte eta ostegunetan 11-tik 12-ak arte yogako ordua izango da gure zentroan. Ekintzan apuntaturik daudenak, erlaxazioaz eta kalmaz gozatuko dute. Irakasle moduan, ekintzan profesionala den langile bat kontratatuko dugu.

Mantenimenduzko gimnasia: astelehene eta asteazkenetan 10:30-tik 11:30-ak arte izango da. Ekintza honetan erresistentzia eta indarra garatuko da eta bezeroen osasunera primerakoa da.

Luzaketak: Astearte eta ostegunetan, 17:00- 18:00. Bizkarreko mina, hanketako mina eta bestelako gaitzak sahiesteko ezin hobe, eta erlaxazioaz gozatuko dute baita ere.

- **Paseoak:**

Egunero 30min/1 orduko paseo bat egingo dugu. Ibilbide desberdinak egingo ditugu Gasteiztik; zentrotik, salburuako parketik... Halaber, igandeetan “ mendi eguna” izango dugu, eta naturaz gozatzeko aukera eskainiko diegu gure bezeroei Gasteizko inguruneetako parajeetan.

2 langile (bolondresak) joango dira taldearekin eta arduratuko dira inor atzean ez geratzeaz.

- **Etxez etxeko zerbitzua:**

Etxetik atera ezin diren eta zerbitzu hau kontratatzen duten guztientzat zuzenduta. Haien etxeetara joango gara eta entretenimenduzko jarduerak egingo ditugu: denborapasak, kartetara jolastu, hitz egin....

MARKETING JARDUERAK:

Gure ekintzaren berri emateko eta ahalik eta jende gehiagori zuzentzeko, hainbat ekintza eramango ditugu aurrera, Marketing jarduerak, alegia.

Lehen aipatu bezala, **kartelak** ipiniko ditugu kaleetan, eskoletan, gizarte etxeetan, garraio publikoetan, nagusi egoitzetan, jubilatutako zentroetan... Horrela, edonor ikus dezake gure ekintza zertan datzan, eta norbait interesatuta badago, egin behar duen bakarra telefonora deitu edo emailera idatzi da. Hor gurekin harremanetan jartzeko guztiak helaraziko dugu: email helbidea, webgunea, sare sozialak...

Beste jarduera bat, aipatu bezala, **hitzaldiak** izango dira. Hitzaldi hauetan zer egiten dugun azalduko dugu. Hitzaldi hauek leku ezberdinetan

egingo ditugu, kontuan hartuta adin ezberdinei zuzentzen garela (bolondresak gazteak dira, eta gure bezeroak nagusiak), ondorioz leku ezberdinetan egingo ditugu hitzaldiak. Hasteko, eskoletan zein unibertsitateetan emango ditugu hitzaldiak, jende gaztearen atentzioa erakartzeko. Gero, gizarte etxeetan, jubilatuen zentroetan, nagusi egoitzetan emango ditugu hitzaldi hauek, pertson nagusien atentzioa lortzeko.

Jarraitzeko, **Gasteizko udaletxearen webgunean** gure berri emango dute, Gasteiztarrek irakurri dezaten gure jarduerari buruz webgune hori bisitatzean.

Azkenik, gu irekita gaude elkarrizketak eskaintzera edozein **hedabideri**, orduan telebistara, egunkarira, irratira gonbidatzen bagaituzte, oso eskertuta egongo ginateke, uste dugulako jende askori ailegatuko zitzaiola mezua modu honetan.